


POBREZIA ENERGETIKOA EBN

Posted on 22/07/2024 by Naider

Energiaren munduko prezioen igoyerarekin eta trantsizio ekologikoaren ekitate-erronkekin, pobrezia energetikoa berriro ere Europako politika ekonomikoaren eztabaiden erdian dago. Hala ere, energia-pobreziaren neurketari buruzko adostasunik ezak zaildu egiten du eremu horretako politiken formulazioa eta ebaluazioa.

[Ikerketa Zentro Bateratuaren txostenak](#) EBko «energia-pobreen» banaketa eta profilen azterketa sakona egiten du, bi adierazle-mota erabiliz: «gastuan oinarritutako» adierazleak, energia-gastuari buruzko informazioa erabiltzen dutenak atalase absolutuei edo erlatiboari dagokienez, eta «ikuspegi adostuan» oinarritutako adierazleak, etxebizitzaren baldintzei eta oinarritzko premiak asetzeko gaitasunari buruzko ebaluazio autoaitortuak erabiltzen dituztenak. Emaitzek erakusten dutenez, EBko biztanleriaren % 8 (ikuspegi adostuaren adierazleak erabiliz) eta % 16 (gastuan oinarritutako adierazleak erabiliz) artean energetikoki pobre gisa sailka daiteke.



[PDF eskuragarri](#)

